



IRUNGO EMAKUMEAK PLAZARA

VICENTA OLAZABAL ABERLAIZ

Nor zen:

Vicenta Olazabal Arbelaiz 1860. urtearen bueltan Irungo herritar aberatsena zen eta garai horretan Irungo herriak bizi izan zituen eraldaketa urbanistko gehien atzean zegoen. Bere izena baina, ez da inondik inora ezagutzen... ez du kalerik, ez plazarik... eta zuen begien aurrean egon beharko zuen etxe ederrak ere ez zuen bere izena mantendu...

Garai hartan Irun 2.500 eta 3.000 arteko biztanleria zuen herrixa txikitxo bat zen. Nekazal eremuak ziren nagusi. Urte gutxiren bueltan baina, asko aldatu zen gure herria. Trena iritsi zen gurera eta harekin garapen industrialia... langile asko eta asko iritsi ziren eta biztanleria laukoiztu egin zen, 12.000 lagun izatera iritsiz.

Olazabal eta Arbelaiz Irungo familia kontserbadoreen alaba zen Vicenta. Bere familia garapen industrialia eta trenaren etorreraren aurkakoa zen, baina Vicentak ondo baino hobeto jakin zuen zetozen aldaketei etekina ateratzen.

Non topatu dezakezu:

<https://parean.eus/portfolio/paseo-interaktiboak/>

Parean elkarte eta Gipuzkoako Foru aldundia

